

'Sirenatxoa' ren ipuina marrazkien bidez kontatu dute Tolosako haurrek

TOLOSA. DV. Askotan kontatu digute Sirenatxoaren ipuina. Kontatu, hitzez. Baina kontatu, marrazkiz? Hori gutxiagotan. Eta kontatu, haur talde batek? Are gutxiagotan. Bada, esperientzia hori ezagutu nahi duenak, Tolosako Haur Liburutegian (Errota) dauka horretarako aukera datorren apirilaren 23ra arte, Liburuaren Nazioarteko Egunera arte, alegia.

Apirilaren 2an Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzen da (Hans Christian Andersenren jaiotza data) eta horren harira, OEPLik, Haur Liburuarentzako Espainiako Erakundeak, urtero proposamenen bat luzatzen die liburutegi eta liburudendei. Batetik, Hans Christian Andersenren ipuin bat lantzea, eskolekin batera, eta horrez gain, idazle batek idatzitako mezu bat zabaltzea.

Eta ekimen honen berezitasuna zera da, ekintza horiek leku ezberdinetan ordu berean eta aldi berean burutu daitezten ahalegintzen direla, esate baterako, ahalik eta leku ezberdin gehienetan apirilaren 2ko eguerdiko 12:00etan Andersenren ipuin bat kontatzea.

Ipuin kontaketa

OEPLik proposatzen zuen aurtengo mezua Margaret Mahy idazlearena zen (2006ko Andersen Saria). Tolosako Haur Liburutegiko arduraduna den Susanak adierazi zigunez, ordea, mezu hori haur txikiek ulertzeko ez zen oso erraza, eta horregatik, mezua irakurri ordez, idazle beraren ipuin bat kontatzea erabaki zen.

Horrela, joan den apirilaren 2an Tolosako Haur Liburutegian eguerdiko 12:00etan baten ordez bi ipuin kontatu ziren: Margaret Mahy-ren El secuestro de la bibliotecaria eta Hans Christian Andersenren Sirenatxoa. Aipatu bezala, Andersenren ipuinak eskolekin elkarlanean lantzen dira. Horrela, aurren eskolei ondoko proposamena luzatu zitzaion: ikasleek egin zitzatela Sirenatxoa ipuinari buruzko marrazkiak. Tolosako ikastetxe guztiek hartu dute parte ekimen honetan, eta orotara 100 marrazki baino gehiago jaso dituzte liburutegian. Batez ere, ume txikienak izan dira marrazkiak egiten parte hartu dutenak, baina helduagoek ere bidali dizkigute, azaldu digu Susanak. Ipuin luzea da Sirenatxoa eta mezu asko ditu bere baitan. Horregatik, adin ezberdinetako umei egokitzen zaie.

Eta hori argi eta garbi islatzen da marrazki horiekin liburutegian antolatu den erakusketan, era guztietako 'artelanak' ikus baitaitezke. Susanak kontatu zigunez, ipuin kontaketa egunean ere nabari zen umeek Sirenatxoa ipuina eskolan aurretik landua zutela. Nahiko fresko zeukaten oraindik, erantzun egiten zuten... polita izan zen.

50 ume inguru joan ziren ipuin kontaketara. Uste baino gehiago -azaldu zigun Susanak- apirilaren 2an ume gehienak jada oporretan baitzeuden. Harrituta geratu ginen. Ipuin kontaketa egun berean, haurrek egindako Sirenatxoren marrazkiekin erakusketa zabaldu zen. Umeei ilusioa egiten die horrek -zior Susanak- erakusketara etortzen dira eta euren marrazkiak identifikatzen dituzte, baita euren lagun batzuenak ere.

Piruleta arrosaren orde

Horrez gain, Haur Liburuaren Egunean, gerturatu zirenei piruleta bana oparitu zitzaion, eta gauza bera egingo da datorren apirilaren 23an ere, Liburuaren Nazioarteko Egunean. Egun horretara arte egongo da erakusketa zabalik. Apirilaren 24an marrazki guztiak bilduko ditugu, eta parte hartu duten ume guztien artean zenbait liburu zozketatuko ditugu, argitu zigun Susanak.

Hasieran esan bezala, askok ezagutuko dute Sirenatxoa ipuina. Baina egun hauetan, Tolosako Haur Liburutegian ipuina modu bitxi batean kontatzen zaigu, haurrek egindako marrazkien bidez. Marrazkiak liburutegian zehar zintzilikatuta daude, baina ez nolanahi; hasieratik bukaerara ordena jarraituz ikusten baditugu, marrazkiek (testu zati batzuek lagunduta), Sirenatxoaren ipuina kontatuko digute.